

UMEEN-DEIA ALDIZKARIA

Etxalekun hasi zen

2008ko maiatzaren 31n Euskaltzaindia Nafarroako herri txiki batera doa batzar berezi bat egitera. Izan ere, egun horretan bertako alaba batek, Sagrario Alemanek, bere sarrera-hitzaldia irakurri behar du. Egun handia da Etxaleku herriarentzat, ohore handia herritarrentzat hango alaba batek euskaltzain oso izendapena bereganatzea.

Euskaltzain berriak “Berdetik horira” izeneko hitzaldia dauka bere eskuetan, eta bere umezaroko hizkuntza eta gaurkoa konparatzen ari delarik, zera diosku:

“Gazteek, oharkabean, naturaltasunez mintzatzeko erraztasun gutiago dute, idazteko eta irakurtzeko ordea, ustez behintzat, handiagoa. Lehen, beti euskaraz ari izan arren elkarrekin, idatzi, erdaraz egiten genuen, erdaraz arras juxtu moldatzen ziren gurasoek ere, seme-alabei, eskutitzak erdaraz idazten zizkieten. Nola ez zuten erdaraz egiten idatzia, ahozko komunikazioa bera ere, telefonoz, telefonoa sartu berritan hala egiten bazuten? Esku artean holako tresna deabru bat zutelarik ezinezkoa zitzairen euskaraz aritzea. Arantzazuko takoa, dotrina, elizako kantuak, **Umeen deia** eta etxe guztietan doan banatzen

zen **Príncipe de Viana** aldizkariaz landa, deus gutxi irakurtzen zen euskaraz herri hauetan”¹.

Mende erdi lehenago, 1959ko maiatzaren 17an, Etxalekutik Iruñera doaz Aita Murieta kaputxinoa eta Pedro Díez de Ulzurrun medikua eta “Institución Príncipe de Viana”-ko bokala dena. Imozeko herri politean Euskal Jaialdi bat antolatu da, eta euskaltzale biak etxerantz doaz. Medikiak gidatzen duen bitartean, fraide euskaltzaleak hausnarketa sakon bat darabil buruan: zelan areagotu umeen euskararekiko atxikimendua, nola sendotu euskal hizkuntza umeengan... Autotik bajatu-eta, kaputxinoak labur eta zehatz azaldu zion bere asmoa medikuari: umeek eurek euretara eginiko aldizkaritxo bat argitaratzea. Ondo ere ondo iritzi zion Díez de Ulzurrunek Aita Murietak esandakoari, eta Príncipe de Viana erakundearen diru laguntzaren bat lortzen saiatuko zela agindu zion, baita lortu ere.

Zazpi urte zituen orduan euskaltzain oso berriak. Handik urte gutxira, hamabi urteko neskatila batek “Erderaren ederra” eta “Bi gizonen beldurra” izeneko ipuinak argitaratu zituen **Umeen-Deia** izeneko aldizkari xume eta bitxian, euskara ederrean argitaratu ere. Errealitate pozgarri bihurtuta zegoen Etxalekutik Iruñerako bidean, maiatzeko egun euritsu hartan Aita Murietak izan zuen ametsa. Umeek umeentzat eginiko aldizkaritxo aurrera zihoan.

Bere hitzaldian euskaltzain berriak beren-beregi aipatu zituen gerra osteko urteetan euskaldunek, orokorrean, eta, zer esanik ez, ume eta gazteek euskarazko irakurgaiak eskuratzeko zeuzkaten arazo larriak. Ume eta gazteentzako publikazioei lotzen bagatzaizkie, tradizioa ezin esan oparoegia zenik, gerra aurreko hamarkadetan ahaleginak egin ziren arren.

Euskara hutsezko lehen tira komikoak (On Kosmerentzat) **Baserritarra** aldizkari donostiarrean agertu ziren 1907an. 1916an **Euzko Deya** aldizkaria Teles eta Niko haur bikotearen

¹ www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/72620.pdf

abenturak plazaratzen hasi zen, eta 1926an **Argia** astekariak **Txistu** argitarapena sortu zuen, hamabi ale besterik ez ziren argitaratu, baina. **Euzko** aldizkariak (1932-34) ere zertxobait egin nahiz, **Gaztetxu** gehigarrian Peru Malluki orri komikoa argitaratzeari ekin zion. Handik lasterrera, Ixaka Lopez Mendizabal kulturgileak euskara hutsezko bigarren komiki aldizkaria plazaratu zuen, **Poxpolin**, orduko **TBO**aren istorioak euskarara itzulita eta Txiki marrazkiliaren ilustrazioekin hornituta argitaratzen zituena. Gerra osteko lehen urteetan Iparraldeko **Pot-tolo** da umeentzat argitaratzen den bakarra. 1959an Aita Murieta-ren **Umeen-Deia** aldizkaria, bere txikian, hutsune nabarmen bat betetzera dator euskal mundura².

Aurten, beraz, 50 urte betetzen dira aldizkaria sortu zenetik, eta uste dugu une egokia dela aldizkaria eta haren sortzailea Frantzisko Torres Ibáñez **Aita Murieta** gogoratzeko eta omentzeko.

Aita Felipe Murietakoa

Frantzisko Torres Ibáñez Lizarra ondoko Murieta herrian jaio zen 1897ko urriaren 3an. Bere aita, Juan Torres Elizondo, Lizarrako semea, zirujaua zen eta ezagutu zutenek ziotenez, kristau eredugarria eta lagun hurko behartsuekiko eskuzabala genuen oso. Ama, Gedeona Ibáñez Arretxea, Nafarroako Iturgoi-en herriko alaba zen eta fededun sutsua. Sei seme-alaba izan zituzten.

Frantzizkok –Paco etxekoentzat– bost urte zituela, familia Lizarra herriko Puy kalera aldatu zen. Handik denbora laburre-ra aita hil zitzairen eta amak Iruñera joatea erabaki zuen, han seme-alabak aurrera ateratzea errazagoa izango zela pentsaturik. Frantzisko gaztea Iruñean Eskolapioen ikastetxean matri-

² Handik lasterrera, 1960. urtean, **Zeruko Argia** aldizkaria **Pan-Pin** umeentzako gehigarria argitaratzen hasi zen, 1970ean desagertu zena. Guztira 68 zenbaki argitaratu ziren.

kulatu zen; eta, 1909an, hamabi urte zituela, Altsasuko kaputxinoetara joan zen. Bertan, berehala, nagusien arreta bereganatu zuen, baita haiengandiko laudorioak sarri jaso ere.

1914ko abuztuaren 7an hartu zuen kaputxinoen abitu latza; eta, ohitura zenez, izena aldatu egin zuen, **Felipe de Murieta** izen berria harturik. Hurrengo urteko abuztuaren 8an lehenengo botoak egin zituen Zangotzan eta 1918ko abenduaren 3an –Xabierreko San Frantziskoren egunez, hain zuzen ere– behinbetiko profesa egin zuen. Kaputxino gazteak bost urtez jardun zuen Hondarribian, Lizarran eta Iruñean Filosofia eta Teologia ikasten, eta 1922ko apirilaren 15ean apeztu zen, Nafarroako hiriburuan; handik lasterrera, apirilaren 18an, eman zuen bere lehenengo meza.

Urte batzuk geroago, 1925eko irailaren 15ean, Argentina aldera joan zen Aita Murieta nagusiek hala erabakita. Bertan O'Higgins, Córdoba eta Nueva Pompeya (B. Aires) hirietako komentuetan irakasle eta organo jolea izan zen. Azken honetan **Juventud** aldizkariaren zuzendaria ere izan zen. Edozelan ere, osasun eskasak behartuta, berak hala eskaturik, Nafarroara itzuli zen. Ha-




Aita Murieta (1930).

maika urte eman zituen Aita Murietak Argentinan eta bueltatzean nagusiek Teruel-go Hajar herrira bidali zuten. 1936ko uztailaren 18an, gerra zibila piztean, erre egin zieten frantziskotarrei komentua, eta gorabehera batzuen ostean Tuterako komentura heltzea lortu zuen Aita Murietak. Handik Lekarotzeko komentura abiatu zen eta San Inazioaren egunean, uztailaren 31n, harrera anaikorra egin zioten bertako anaia kaputxinotarrek.

Hala eta guztiz ere, gerra garaia ez zen izan samurra Aita Murieta bezalako euskaltzale batentzat. Une txarrak izan ziren zinez, eta 1936tik 1939ra gurutze bide partikularra bizitzea tokatu zitzaion: Vigo, Sevilla, Granada, Salamanca... Gerra amaitzean, Lekarotz eta Zangotzan egotaldi labur batzuk egin eta gero Altsasura joan zitzaigun; eta, azkenik, bere etxea izango zen Iruñeko San Antonio komentura joan zen.

Frantziskotar hutsa, onbera, xaloa, umoretsua, gozoa, ulerkorra, nortasun sendokoa, ekintza gizon aparta, gauzak isilean egin zalea, gizabidetsua... Horra hor ezagutu zutenek kaputxino apalaren gainean esaten dutena. Azken gaixotasuna, minbizi ankerra, heldu zitzaioanean ere eroapenez



Aita Murieta (1966).

eramaten saiatu zen, ingurukoei ahalik eta lanik gutxien emanik. Beretzat nahi zuen gurutzea, ez zuen nahi beste inork beragatik sufritzerik:

“Goi arnas aundiko gizona –ez esateagatik santua–, barnean estaltzen zuen Jainkoak emandako gurutzea. Anaia anai izanik, etzion ontan besteri baño aurrerabide gehiago ematen. Bere gurutzea osorik beretako nahi zuen”³.

Heriotza hurbil sentitzean, lagun batek Aralarko santutegira eramane zuen. Izan ere, urtero joan ohi zen Aita Murieta Aralarra, batez ere Gorpuzti eta Mikel Goiangeruaren egunez. Egonotan euskarazko aitortzak entzun eta organoa jotzen zuen meza nagusian. Azken bisitaldi horretan ere, teklak maitasunez joz eta hauspoak ozta-ozta mugiaraziz, azken agurra luzatu zien euskaldunon zaindariari eta bertako natura zoragarriari.

Zarata handirik atera barik bizi izan zena halaxe hil zen, 1966ko uztailaren 13an, azken olioak –Aita Murietak beren-bereskututa– anaia Ismaelek emanda.

Aita Murieta idazle, euskaltzale

Gorago esanda daukagunez, Buenos Aires-en eginiko egotaldian **Juventud** aldizkariaren zuzendaria izan zen eta bertan kokatu daiteke letrakiko lehenengo harreman literarioa. Kaputxino euskaltzalearen lehenengo lanetariko bat Teruelgo Hajar herrian

³ Torres, Ismael: **Umeen-Deia**, Librería Claret, Bilbo, 1971, 17. or. Liburu honetan Aita Murietaren anaia Ismaelek hainbat datu, testigantza eta artikulua eskaintzen dizkigu. Era berean, **Umeen-Deia** aldizkarian haurrek idatzitako 1.482 kolaborazio ematen dizkigu lurraldeka, herrika eta ordena alfabetikoz antolatuta. Hona hemen egilearen hitzak: “UMEEN DEIA aldizkariaren berritze hau aita Felipe Murietako sortzaile eta zuzendari berberaren gomendioz moldatu dut. Jakintsu haundien ustez, euskeran eta beste edozein elertitan jakingarri den aberastasuna bezala jo laike. Euskeraren zabalkunde hain egoki jokatatu zuen gizonari hil-ondoko omenaldia da, denbora berean. Aldizkari guziaz jatorra da eta oso osorik biltzen dugu hemen” (70. or.).

idatzitako gerra-kronika dugu. Izan ere, bertan zegoela piztu zen Espainian gerra zibila, eta hur-hurretik bizi izan zuen euren komentuarien erreketak, baita zenbait pasadizo lazarri ere.

Aita Murietak euskara ikasteko hainbat ikasliburu idatzi zituen, baina idaztiok ez zuten argia ikusteko zoririk izan. Liburu horiek euskara ikasteko eta irakasteko, beren-beregi prestatutako materialak dira, betiere sinpletasunari lehentasuna emanik. Izan ere, euskaldun berri izanik, kaputxinoak bazekien zenbat kostatzen zitzaion jendeari, behin euskararen bidean abiatuz gero, bide horretan jarraitzea eta irautea.

Jose Mari Satrustegi dioskunez⁴, lau lan nagusi prestatu zituen Aita Murietak euskararen irakaskuntzari begira, baita makinaz txukun jo ere:

- a). **Gramática elemental del vascuence.** Lehen mailako ikasgaiak ditugu, errazak eta ikasitakoa apurka-apurka erabili ahal izateko zenbait ariketarekin hornituak. Proposatzen duen euskara mota ahozko hizkuntzatik hurbil dago.
- b). **El verbo en su forma impersonal.** Ikusirik, euskal aditza ikasle askorentzat arazo handi ere handia zela, bere esperientzia propioan oinarriturik, Aita Murietak aditz forma nagusiak eskaintzen zizkion ikasle hasi berriari, hasiera-hasieratik erabiltzeko gai izan zedin. Kasuon ere, ez zen asko urrundu herri hizkeratik eta ariketa ugariz hornitu zituen bere azalpenak. Liburuaren azalean esaldi esanguratsu hauze dago idatzita: “Dena lortu ezina ez da ezer ez egiteko arrazoia”.
- c). **Ejercicios prácticos sobre el verbo euskérico.** Funtsean aurreko liburuaren jarraipena. Hogeita sei ikasgai dira guztira.

⁴ Satrustegi, Jose Mari: **Frantzisko Torres Ibañez Aita Felipe Murueta-koa (1897-1966)**, Bidegileak 33, E. Jaurlaritzak, Gasteiz, 2003.

- d). **Diccionario fraseológico**. Bostehun bat hitzen adiera eta joskera bildu zituen euskara-ikasleek euren hizkuntza non aberastua izan zezaten. Liburuaren barne aldean aldatu egiten du izenburua (**Pequeño Vocabulario erdera -euskera**). 1956an sinatzen du liburua, baina sinadura ez da ohikoa, “EGA ldeko batek idatzia” sinatzen baitu. Sastrustegirentzat, kronologikoki, berau dateke azken lana, laurak elkarren osagarriak izaki.

Aita Murietaren ezizen erabiliena “Apakia” zen, eta izen bera zeukan Iruñeko Carlos III.a kaleko haren **argitaletxetxoak** –hala deitzen zion berak, umoretsu, bere gela frantziskotarrari–. Langintza horretan, kanpotik laguntzaren batzuk lortzen bazituen ere, Aita Murieta bera zen ia-ia dena: fundatzaile, zuzendari, idazkari, proba-zuzentzaile... Esan dezakegu bera zela “Apakia” editoriala, eta bera zela **Umeen-Deia** aldizkaria ere.

Jarduera horretan askatasun osoa eman zioten nagusiek, eta bere lantegitxo horretan idatzi eta moldatu zituen goian aipaturiko lan guztiak, baita hurrengo gehienak ere:

- a). **Nafarroako Bertsolarien Txapelketa** (1960-61, 1962, 1963): Nafarroako Diputazioko “Príncipe de Viana”-ko euskararen aldeko sailak Euskaltzaindiaren laguntzarekin antolaturiko txapelketetako bertsoak bildu zituen hiru liburuxkaotan⁵.
- b). **Kontu Zarrak eta Berriak** (1961): Hamasei orrialdeko liburuxka, kolorezko apaindurekin hornitua. Euskal Herriko zein mundu zabaleko ipuinak batzea zen Aita Mu-

⁵ “Nafarroa Garaiko txapelketetan abestutako bertsorik gehienak liburuxka ttipi batzutan bildu izan dira. Pedro Díez de Ulzurrun medikua eta Estellerriko Murieta herrixkan sortutako Francisco Torres kaputxinoa, hots, Aita Felipe Murieta arduratzen ziren ordu libretan bertsoak paperera pasatzen. Gisa honetan, 1960-1961, 1962 eta 1963. eko bertsoak argitara eman ziren. 1964 eta 1966.eko txapelketak ez ziren argitaratu Aita Felipe Murieta gaisotu eta hil zelako” (“Nafarroako Txapelketen lehen aldia, 1960-1966”, www.berতোzale.com).

- rietaren nahia, baina baimen kontuengatik ale bakarra argitaratu zuen.
- c). **Mendizaleen Meza** (1963): “Euskeraz eta gaztelaniaz eta euskal kantak” azpigitulua agertzen zen “Apakia”-k berak eginiko publikitatean.
 - d). **Maria Luisa Aguerre**. D. L. Bolher-en liburuaren itzulpena, frantsesetik gaztelaniara.
 - e). **Encuesta entre estudiantes sobre el euskera**: 13-16 urteko gaztetxoek euskararen inguruan egindako galdekizunak dira. Lehenengo sorta hogeita sei erantzunekin moldatu zuen, eta Ignazio Larrañaga Lasari, Pingliang-eko (Gansu, Txina) apezpiku kaputxinoari, eskatu zion hitzaurrea, baita honek egin ere, 1965-04-17an sinatua. Edozelan ere, baimen arazoengatik ezin izan zen argitaratu Aita Murietaren lana.

Apakia izena aipatu dugularik, ezinbestekoa da hizpidera ekartzea Aita Murietaren jatorria eta euskararekiko haren atxikimendu irmoa, jaio zen herrian euskara aspalditxo galdua zegoen arren. Paco Torres umetxoak, beraz, ez zuen euskal hizkuntza gurasoen ahotik ikasi eta horrek hutsune sakona utzi zuen murietar gaztetxoarengan. Hori dela-eta, gaztetan hasi zen euskara ikasten, baita bere baitan betiko errotu ere. Zaletasun horretan, zalantza barik, amaren eragina, amarekiko lotura afektiboa, erabakiorra izan zen.

Ama Iturgoien herriko alaba zen eta ba omen zekien zer-txobait euskaraz; izan ere, hitz solteren batzuk esaten omen zizkien seme-alabei, euren artean **apakia** (“sutondoan hauts azpian gordetako ilitia edo txingarra”). Hona hemen zer zioen Jose de Arteche idazleak Aita Murueta hil berritan⁶:

“Bere amatzaz askotan itz egiten ziran. Orain Naparruko Murieta´n ez da euskeraz itz egiten, baño bere amak ba

⁶ Arteche, Jose de: “Aita Murieta”, *Zeruko Argia*, 1966-08-07.

omen zekien euskeraz zer bait, eta arek erabiltzen zituan itzak esaten zizkidan.

Abetan bat **apakia**, kear azpian gelditzen dan txingarra adieraziaz. Zenbat maite zuan itz au Aita Murieta ¡k! Baño iztegiak erabilli arren, ez det arkitu. Nik erabillitakuetan beintzat. Ezta Azkue⁷ren iztegian ere⁷.

Murieta, Lizarra⁷tik gertuan dagon erri txiki bat da. Noiz galdu zen euskera bertan?⁸ Nola gogoratzen zala Aita Murieta bere amak erakutsitako euskerazko itzakin!”.

Esan dezagun Aita Murieta bera ere **apakia** zela; eta, era berean, kaputxino pobrearen gela-argialetxea ere **apakia** zela.

⁷ Azkuek, Orotariko Hiztegiak eta UZEIk **apakin** hitza dakarte. Azkuek: **apakin**> **pozo**; **suciedad**; **hierba de arroyo**; **residuo**; eta **charco** adierak dakartza. Euskaltzaindiaren Orotarikoak: **apakin**> **residuo**, **materiales de aluvión**; **pozo**; eta **hierba de arroyo**. Edozelan ere, lehenengo adieraren inguruan Murietaren amaren “apakia” gogorazten digun adibide bat dakar, Nemesio Etxanizen **Lur Berri Billa** (1967) liburutik hartua: “Sasiolatik dator / ibai aberatsa, / illargi berrietan / angula arratsa, / ujola-egunetan / egurra ta zotza, / **apakiñez berotu / dedin etxe otza**”. UZEIk: **apakin** (gutxi erabilia)> **apurkin**, **hondakin**, **kondar**...; baina baita honako hau ere: **errondo**. Azkueren hiztegiara joz gero: **errondo**>tizón (**ilintia**), hain zuzen ere “apakia” hitzaren adiera bera.

⁸ “En los valles apartados de la montaña es donde se parapetó durante más tiempo la lengua de nuestros antepasados ya que la movilidad de la población era mínima y se fueron conservando mejor las características de cada modalidad dialectal, influenciada a su vez por el vascuence de las zonas de contacto en función de relaciones familiares y por razones de convivencia y trabajo El siglo XIX, con matizaciones puntuales, supuso la pérdida definitiva en buena parte de la comarca de Estella.

Iturgoien. La franja noreste de Tierra Estella en las estribaciones de la sierra Andia, no aparece en la documentación del estudio y es una zona que ha conservado hasta muy tarde la lengua vasca. El Padre Felipe de Murieta, Francisco Torres Ibañez (1897-1966), capuchino, decía que su madre Gedeona Ibañez, nacida en Iturgoien, sabía euskera” (Hitzok, Juan Mari Satrustegik **Toponomástica histórica en Tierra Estella y Valdizarbe** libururako idatzitako hitzaurrean agertzen dira).

Izan ere, gerra osteko urte latzetan agonia luze baten zetzan euskararen su ahula, hautsak ito aginean, baina bizirik hala ere, bizkunde loretsu baten zain. Lizardik ere **apakia** aurkitu zukeen hauts gainera belaunikatu zenean:

“Ordun belaunikatu
nintzan auts gaiñera.
Ark gordetako sua,
zu´ere il ote zera?
Autsa pittinka urratu
nuan, beldur-bera.
Sua bizirik dago!
Galduak ez gera!”⁹.

Apakia umeen aldizkarigintzan: Umeen-Deia

Aita Murietak argitaratu gabeko apunte batzuetan dioskuzenez, orduko euskaltzaleen pasibotasunak bultzatu zuen euskal nortasunaren ezaugarri nagusia den euskal hizkuntzaren alde zerbaitegitera:

“En la actual situación de la vida del euskera, triste es decirlo, ni la Literatura ni la Filología hacen nada de provecho para la conservación del mismo. Aun en el aspecto **político**, el trabajo de muchos de los que se dicen **patriotas** no hacen absolutamente nada en pro del aspecto más interesante y básico de la vida del Pueblo Vasco: el propio idioma. Porque, desaparecido éste, el mismo Pueblo Vasco habrá pasado a la historia, o, como vulgarmente se dice, habrá muerto”¹⁰.

Esan dugunez, ideia 1959ko maiatzaren 17an sortu zen, Príncipe de Viana¹¹ elkarteak Etxaleku herrian antolatutako

⁹ Lizardi: “Euskal Pizkundera” (Olerkiak Xabier Lizardi, Erein, Donostia, 1983).

¹⁰ Umeen-Deia, 41. or.

¹¹ Nafarroako Diputazioa, “Euskararen Aldeko Saila”-ren bitartez,

jaialdi baten inguruan. Aldizkariak hasieratik bertatik 5.000 pezetako diru laguntza jasotzen zuen urtero Díez de Ulzurrunen gestioei esker; baina Aita Murietak berak esaten zuenez, **Umeen-Deia** ateratzea sare euskaltzale langile eta eskuzabal bati esker izan zen posible: babesleak, euskaltzaleak, maisu-maistrak, gurasoak, euskal umeak...:

“Merced a esa subvención, y a la generosidad de unos pocos euskalzales, sobrevive UMEEN-DEIA. Pero hay que notar que esa ayuda económica no serviría para nada de no haber hallado **algunas** personas verdaderamente euskalzales que con su esfuerzo personal animaran a los niños a sostener la revista con sus escritos”¹².

Argitaratzeko baimena lortu ahal izateko, Pedro Díez de Ulzurrun abadea¹³, Ignazio Baleztena eta Aita Murieta bera joan ziren Nafarroako Diputaziora. Orduko ahaldun nagusia Jaime del Burgo zen, eta, dirudienez, amultsuki hartu zituen. Aita Murietak oso planteamendu xumea –frantziskotarra esango genuke– egin zion: lau orrialdeko papertxo bat, izenbururik ez zeukana; maiztasun jakinik ez; dohainik banatu beharrekoa; umeek idatzitako gauzatxoak besterik (ipuinak, tokian tokiko berriak, pasadizoak...) argitaratuko ez zituen...

Proposamenaren xumea!, pentsatuko zuketen Diputazioko arduradunek. Kontua da, berehala eman ziotela argitaratze-baimena (NA 295/1959) Aita Murietari eta honek lanari ekin ziola, gogotsu ekin ere. Posta helbide batekin hasi zen lanean Aita

1957an hasi zen haur euskaldunei sariak banatzen. Horretarako, Nafarroako eremu euskalduneko herrietan beren-beregi antolaturiko jaialdiak baliatu zituen.

¹² **Umeen-Deia**, 42. or.

¹³ Izan ere, bi Pedro Díez de Ulzurrun izan ziren gerra osteko Iruñean: bata medikua, Pedro Díez de Ulzurrun Etxarte (1924-1994), Iruñean bertan jaioa; eta bestea abadea, Pedro Díez de Ulzurrun Ezkurdia (1907-1977), Irañeta herriko semea. Biak euskaltzale sutsuak, biak ahala biak euskaltzain urgazleak, bitzuek Iruñean bizi izanak eta bertan zenduak adin bertsua zeukatela...

Murieta: **Umien Deia**, Carlos III, 22. Pamplona. Gerora –23. zenbakitik aurrera– helbidean erabilitako epigrafea izango da aldizkariari izena emango diona: **Umeen-Deia**.

Lehenengo alea 1959ko ekainean argitaratu zuen Aita Murietak, eta hilero-hilero jarraitu zuen argitaratzen, harik eta 1965eko udazkenean lege aldaketa batek aldizkariaren bidea eten zuen arte. Hori dela-eta, kaputxino nekaezina **Euskal kon-tuak** izeneko ipuin bildumak (16 orrialdekoak) argitaratzen hasi zen, baina bigarrena¹⁴ inprentan zegoela hil zen Murietako semea¹⁵. Gaztetxoek eta nerabeek ere parte hartu ahal izan zezaten, 1963an Aita Murieta **Gu Batxiller Euskaldunok** aldizkari berria (8 orrialde) hasi zen argitaratzen, baina lehenengo bi zenbakiek baino ez zuten argia ikusi.

Aldizkariaren mantxetari bagagozkio, aldaketa bat baino gehiago ikus dezakegu aldizkariaren bizitzan zehar: a) 1-3 zenbakietan “Depósito Legal”-aren zenbakia besterik ez da agertzen¹⁶; b) 4-15 zenbakiek data daramate; c) 16. zenbakitik aurrera zenbakia darama agerkariak; d) 23. zenbakitik aurrera **Umeen-Deia** izenburua agertuko da¹⁷; eta e) 45-65 zenbakietan izenburu bikoitza izango du hilabetekariak: **Eudeia (Euskal Umeen-Deia)** Donostiatik (Arabara, Bizkaira eta Gipuzkoara) banatuko da, eta **Umeen-Deia** Iruñetik, nahiz eta mamiz eta izaeraz aldizkari bera izan.

¹⁴ Murietak Jose Angel Irigarai nafar euskaltzale ezagunaren eskuetan utzi zuen proiektuaren jarraipena eta honek hurrengo bi zenbakiak argitaratu zituen, **Umeen-Deia** berrirako argitaratze baimena heldu bitartean.

¹⁵ Argitalpenok bideratzen Rafael Goñi abadeak laguntzen zion Aita Murietari eta Ismael Torresek kontaktzen digunez (**Umeen-Deia**, 41. or.), bien eskelak egun berean agertu ziren Iruñeko egunkarietan.

¹⁶ Edozelan ere, esalditxo hauxe zekarren aldizkariak ikurriz modura: “Aterako da ahal dugularik. Ahalko dugu nai duzularik”.

¹⁷ 23. zenbakitik aurrera honako idatzi hau agertuko da azken orrialdean: Reg. NA 18-61. Graf. XAVIER, Pamplona. Dep. Legal: NA-295-1959.



Lehenengo zenbakian agertzen diren hitzotan argi ikus daiteke Aita Murietaren egitasmoa zertan zetzan. Hona hemen kaputxinoak ume euskaldunei luzatutako berbak:

“Aurrek: zergatik egon bear duzue zuek beti ixillik? Noiz bat itz-egin bear duzue aundiek bezala. Nai dugu jakin zuen errietako berri. Bidali lanak zuek berberak idatziak eta firmatuak, esanez gañera zenbat urte duzien. Igorri dizkigute erri zenbaitzuetatik, baño nai dugu egin dezazuten euskaljerri guzietako mutiko edo neskatiko euskaldunek. Guk ezarriko dugu gero inprentan”.

Aparteko orri baten, erdaraz, aldizkariaren xede nagusia aipaturik, hots, gaztetxoek euskararekiko atxikimendua sendotzea eta areagotzea, helduen partaidetzaren garrantzia ere azpimarratzen du:

“Nada mejor que las ingenuas ideas de los niños para mover a serias meditaciones a los grandes. Empresa ardua es ésta. Pero nos hemos lanzado a ella. Y nos hemos lanzado, como vulgarmente se dice –en el caso es realidad–, sin un céntimo, confiados en la buena voluntad de todos los amantes del euskera. La hoja se reparte gratis. Tenemos a nuestro favor la confianza del éxito y el entusiasmo de nuestros pequeños. Esperamos tener también la ayuda de los Mayores”.

Aldizkariak lehenengo urtea bete zuenean (1960ko ekaina), Aita Murietak ale bikoitza argitaratu zuen, bata euskaraz eta bestea erdaraz, ahalik eta jenderik gehienengana heldu ahal izateko. Aleotan lehenengo urtearen balantze moduko bat egin du kaputxino euskaltzaleak:

Gu Batxiller

UMEEN-DEIA
CARLOS EL NOBLE, 22
PAMPLONA

Euskaldunok

ere gure-gurea dan **EUSKERA** landutzeko eginbearra nai dugu artzen.

“No todo se ha desarrollado a medida de nuestras esperanzas y deseos; pero tenemos la satisfacción, muy honda por cierto, de haber trabajado en la medida de nuestras posibilidades en pro del Euskera.

Alégranos el haber asociado a tantos niños y niñas euskaldunes a tan noble empresa. Si a esto añadimos las palabras de aliento y de simpatía que nos han llegado de todo el País Vasco y de los más lejanos países, se comprenderá el que sigamos confiados el camino que hace un año emprendimos”.

Izan ere, aurreko urtean “Apakia” Argitaletxera, kaputxinoaren gela pobrera, bidalitako lanak 350 inguru dira (%55 Nafarroatik, %38 Gipuzkoatik, %4 Bizkai-Arabetatik, eta gainontze-koak Ameriketatik), eta euretatik –oso datu azpimarragarria– %45 neskatok eginak.

Eupadak, adore-hitzak eta zorionak nonahitik heldu zaizkio Aita Murietari. Ignazio Maria Etxaide orduko Euskaltzainburuak honako hau ziotson 1960ko apirileko eskutitzean:

“Zorionik aundienak eman bear dizkizuet Euskaltzaindiaren izenean artu dezuten zeregin balio aundikoagatik. Izan ere, aurrak geroko gizonak dira eta eztago dudarik euskalgaietan saiatzen badira gure euskal-kulturak etorkizun argia izango duela”.

Hurrengo hil eta urteetan Euskal Herritik ez ezik, mundu zabaletik ere ugariak izango dira Aita Murietak harturiko esker onezko gutunak: Suediako Lund unibertsitatetik (N. M. Holmer eta V. Abrahamson), Pragatik (N. Tauer), Insbruck-etik (A.M. Goyarzun), Hego Ameriketatik (Rev. Internacional Americana, B. Aires-eko Euskalzaleak elkarte eta Mar del Plata-ko Euskal Etxea, besteak beste)...

Umeen-Deia aldizkarian eta euskararen alde eginiko lana saritu guran, Euskaltzaindiak 1961eko azaroaren 24an egindako bileran euskaltzain urgazle izendatu zuen Murietako euskalduna. Batzarraren aktak honako hau dio: “Iru urgazle barri izentatu dira: Mariano Iceta, Francisco Tirapu, eta Aita Felipe Murieta´ko kaputxinoa, UMEEN DEIA´ren zuzendaria”. Izendapena bihotzaren erditik eskertu zion Aita Murietak Euskaltzaindiari, apal-apal eskertu ere: “Ez nuan merezi orrelako goratzerik. Beronek emango dit bidea aurrerakoan lan ugariagoa egiteko gure Euskera maitearen bizibiderako” (1962-03-08).

Edozelan ere, **Umeen-Deia** aldizkaritxoan umeek eurek idatzitako testuen artean, ohikoa zen Aita Murietak euskaraz eta erdaraz tartekaturiko aipuak, esaldiak, bertsoak-eta agertzea, kasurik gehienetan helburu didaktiko batekin. Honakook genituzke garrantzitsuenak:

- a). **Pentsalari handien aipuak** (“Lo que dicen los sabios y lo que dicen los otros”). “El mundo no habrá de ganar nada por el hecho de que mueran las lenguas de los pueblos pequeños; por el contrario, todo será perder. El reemplazar la diversidad lingüística actual por un número reducido de lenguas llamadas grandes o también por una sola lengua, artificial o no, llevaría simplemente a una fosilización del pensamiento, sería una organización de la estupidez... El euskera debe sobrevivir para que el espíritu vasco no muera” (Benjamin Lee Whorf). Aita Murietak honako hau gehitu ohi zuen holakoen az-

pian: (Esto dicen los sabios. Los tontos y los enemigos del Euskera dicen todo lo contrario)...

- b). **Esames bitxiak.** Euskaraz eta erdaraz, sarri errepikatu egiten zituenak: “La revista vasca más leída. Se lee por lo menos en cinco partes del mundo”; “Aurreku, ezpatadantza, ariñ-ariñ... oso politak benetan. Dantzak baño obeki ordea, euskerak ematen dio bizia Euskalerrinari”; “Revista única: apta para mayores escrita por pequeños”...
- c). **Bertsoak.** Esanda daukagunez, Aita Murietak parte aktiboa izan zuen Nafarroako Bertsolari txapelketa askoren antolaketan. Txapelketetan kantaturiko bertso-bildumak ere argitaratu zituen. Sarri baliatu zituen Aita Murietak euskararen inguruko bertsoak, baita aldizkarirako beren-beregi paratutakoak ere: “UMEEN DEIA nolakoa dan / bear genduke juzkatu; / aurtxo txikiak zeñen ederki / egiten diran jostatu! / Aita Murietak asi zuanda / oraindik ezta nekatu, / gero ta gero politaguak / egiten ditu moldatu. / Irakurtzeko gogorik bada / berai Iruñe´ra eskatu” (M. Arotzamena)...
- d). **Kultur oharrak:** Bertsolari txapelketen inguruko jakingarriak, Príncipe de Viana elkarteak antolaturiko sariketen berri, Nafarroako Euskal Herriaren Adiskideek eginiko lanak...

Guztira, 65 zenbaki (lau orrialdekoak) argitaratu ziren, euretariko zazpi (material ugari egoteagatik) bikoitzak izan zirelarik. Hona hemen datu nagusiak: 65 zenbaki, 330 orrialde, 1.500 kolaborazio inguru, 885 idazle txiki...

Uztaren ederra! Umeen bihotzetako lur bizi eta jorian emaro erein zuen aita Murietak euskalduntasunaren hazia, eta ereite horrek fruitu ugari opetsi zion euskal kulturari. Esanda daukagu 1965eko udagoieneko argitarapen lege berriak etena ekarri ziola aldizkariari. Aita Murietak, gaixorik eta ahul zegoen arren, galdekizuna bete eta eskaera egin zuen aldizkaria

argitaratzen jarraitu ahal izateko. Laguntza eske ere hasi zen han-hor-hemen. Aita Onaindiak kontaktzen digunez¹⁸, eguerdi aurre baten joan zitzaion Aita Murieta Larrako (Amorebieta-Zornotza) komentura eta beren-beregi eskatu zion Amoroto-k karmeldarrari aldizkaria bere gain hartzeko, bera gaixo samar zegoela-eta:

“Beti agertu izan naz gertu mesedeak egiteko; ainbat errazoi arildu eustazan Aita Felipe Murieta⁷k, baiña azkenez, ezetz esan bear: etxeko ta edu orretako lanakaz bete-bete egiñik aurkitzen nintzan. Gaiñera, zeregin ori aita kaputxinoak eurak artzea nai neban, nik baiño obeto bete al izango ebela-ta. Pena aundiz biurtu zen etxera A. Murieta, biziak jota il-zori sentitzen zan euskaltzale porrokatua”.

Gizon txikiak bere lan handia opetsi zigun. Haurrengan zekusan geroa eta umeak irabazi nahi izan zituen euskararentzat. Aita Murieta ondo ere ondo ezagutu zuen Jose Mari Satrustegik dioskunez, –euskaldun askoren euskararekiko utzikeria ozen salatuagatik– isilean eta apaltasunez burutu zituen bere egitekoak, zarata handirik atera barik, lagun hurkoa gehiegi moles-tatu barik. **Gizon haundi bat** genuen kaputxino txikia:

“Ixilian egin ditu bere gauzak. Ixilian ikasi zuen euskera, ots aundiko askok egiten ez dutena. Ixilian idatzia zuen euskaldun berriendako gramatika; eta argitaratzeko biderik eman ez duen ixiltasunean, izan ere. Ixilian bere Euskalerra maitearen aldeko otoitza; eta ixiltasunik aundienenan bere eritasun latza... eta eriotza. (...) Itz gutxi eta egite ugari, ori da gizonaren neurria; gure arteko gizon aundi baten mendi gailurra”¹⁹.

Beharrik, Aita Murieta hil zen urte berean (1966), Jose Antonio Retolazaren eskutik, **Kili-kili** aldizkaritxoak hartu zuen **Umeen**

¹⁸ Onaindia, Santi: “Iruñarrakaz”, in **Oroi-txinpartak**, Igarri SCL, Bilbo, 1988, 84-86.

¹⁹ Satrustegi, Jose Mari: “Gizon aundi bat”, **Príncipe de Viana**, 1966, 6, 2. or.

-**Deia** apalak utzitako lekua. Umeek bazuten beste erreferente bat Bizkaitik Euskal Herri osora zabalduko zena. Apakiak bizirik zirauren Kili-kili umetxoarengan. Hori ikustean, Aita Murieta pozez gainezka egongo zen **ixarren unian**; bitsetan ikusiko zituzkeen umetxo bizkaitarraren ibilerak arimen pausalekutik.

Bibliografia

- Aleman, Sagrario: “Berdetik horira” (Sarrera hitzaldia, euskaltzain oso izendatzean, Etxaleku, 2008-05-31), www.euskaltzaindia.net/dok/euskera/72620.pdf
- Arozamena, Mikel: “Aita Murieta zanari”, **Príncipe de Viana**, 1966-urria.
- Arteche, Jose de: “Aita Murieta”, **Zeruko Argia**, 1966-08-07.
- Calleja, Seve: **Haur literatura euskaraz. Lehenengo irakurgaietatik 1986ra arte**, Labayru Ikastegia-BBK, Bilbo, 1994.
- Claveria, Carlos: “**Umeen Deia**-ren sortzaillea izketan gurekin”, **Zeruko Argia**, 71, 1964-07-05.
- Díaz Noci, Javier: “50eko hamarkadako euskal aldizkariak eta beren eragina”, **Egan**, 54, 2001, 97-124. Baita hurrengo helbidean ere: www.ehu.es/diaz-noci
- “Euskal kazetaritza” in **Kazetaritza hizkuntza minorizatuetan: Espainiako kasua**, EHU, Gasteiz, 2009, 13-403.
- Diez Ulzurrun, F.: “Abriendo caminos al euskera”, **Diario de Noticias**, 2008-06-01.
- Díez de Ulzurrun Etxarte, Pedro: “Aita Felipe Muruetakoa zanari”, **Príncipe de Viana**, 1966-ekaina/uztaila.
- Díez de Ulzurrun Ezkurdia, Pedro: “Aita Felipe Murueta il zai-gu”, **Zeruko Argia**, 1966-07-13.
- Iñigo, Andres: “Euskara Estellerrian”, **Euskera**, XLIX, 2004, 2, 1121-1126.
- Izagirre Sagardia, Ana: **Ahozko hitzetatik idatzietara: ikasi eta jardun**, Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 2007.

- Onaindia, Santiago: “Aita Felipe Muruetakoa”, in **Euskal literatura IV**, Etor, Bilbo, 1976, 349-351.
- “Iruñarrakaz”, in **Oroi-txinpartak**, Igarri SCL, Bilbo, 1988, 84-86.
- Satrustegi, Jose Mari: “Gizon aundi bat”, **Príncipe de Viana**, 1966, 6, 2. or.
- “Umeen Deia”, **Príncipe de Viana**, 1971, 62, 3. or.
- “Aitzinsolasa-Prólogo” in Sáinz Albero, Inés & Sáinz Pezónaga, Jabier: **Toponomástica histórica en Tierra Estella y Valdezarbe**, Euskara Kultur Elkargoa, Pamplona, 2002.
- **Frantzisko Torres Ibañez Aita Felipe Muruetakoa (1897-1966)**, Bidegileak 33, E. Jaurilaritza, Gasteiz, 2003.
- Torres, Ismael: **Umeen-Deia**, Claret Liburutegiak, Bilbo, 1971.
- XX: “Francisco Torres Ibáñez, Padre Felipe de Murieta”, **Ze Berri?** (Euskararen sustapenerako udaletako aldizkaria), 2005-apir., 13. or.

Iñaki Sarriugarte Irigoien